

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

AURKIBIDEA:

1. ELAren IRITZIA LANGABEZIAREN AURKAKO 2012rako PLANARI BURUZ
2. ELAren PARTE-HARTZEA ARABAKO BATZAR NAGUSIETAN FISKALITATEAREN PONENTZIAN
3. DIRU PUBLIKOKO BESTE 19.000 MILIOI EURO BANKIARENTZAT
4. ESPAINIAR ESTATUAN ATZERALDIA ETA LANGABEZIAREN HAZKUNDEA IRAGARRI DITU ELGAK
5. TROIKAK GREZIA MEHATXATUTA DAUKA EUROPAKO BURUEN ETSIPENAREN AURREAN
6. PROPOSAMENA: ETXEBIZITZA DUIN BATEN ALDE

1. ELAren IRITZIA LANGABEZIAREN AURKAKO 2012rako PLANARI BURUZ

Aurtengo otsailaren 22an Eusko Jaurlaritzak, Confedebak, CCOOek eta UGTk, Gizarte-Elkarrizketarako Mahaian bildurik, "Langabeziaren aurkako 2012rako Plana" izeneko akordioa sinatu zuten.

Akordioaren lehen atalak enpleguaren egoera zertan den aipatzen du, ELA inolaz ere bat ez datorrelarik honekin. Sinatzaileek sinetsarazi nahi digute enplegua bertan Europako antzeko egoeran dagoela, edo ez dela kezkatzeko modukoa. Baina hau ez da inondik ere egia. EAEko langabezia maila espainiar Estatukoa baino txikiagoa bada ere, Europar Batasunean lehen postuetan dago: %16an, EB-eko batz besteko %10,2aren aldean. 2008tik hona ia 10 puntu gehitu da, eta EB-ean, berriz, igoera bi puntukoa izan da. Akordioan ez da inongoa aipamenik egiten prekarietateari buruz edota aldi baterako enpleguan egiten den iruzur itzelaz, nahiz eta erregistratutako kontratuen %93 oraindik ere aldi baterakoa den. Halaber, ez da ezer esaten enpresei langileekiko gero eta indar handiagoa ematen dieten etengabeko erreformei buruz, lan arlokoak zein negoziazio kolektiboarenak.

Bigarren atalean akordioak jarduteko bi ildo finkatzen ditu:

- Lanbide eraginkor, adostu eta konprometitu eraikitzen jarraitzea.

Martxan hastea ezinbestekoa dela onartzen da, orain arte gertatu ez dena. Hau oso larria bada ere, are gehiago oraingo egoera ekonomikoan eta langabezia mailarekin. Planak ez duela inongo eraginik izango ere onartzen dute, izan ere, orain arte zer egin den ikusita; helburu bakarra hobetzea izan daiteke.

- 2012an gauzatzeko sustapen neurri zehatz batzuk martxan jartzea,;

Pertsonei dagokienez, erabakiak bi sailetan banatzen dira: Lehendik bazeudenak (Lanbide Heziketa finkatzen jarraitzea, orientazio, informazio, laguntza, motibazio eta aholku zerbitzua ematea) eta nahikoak izan ez direnak. Badago puntu berri bat, prestakuntza partzialaren aukera, baina honek ez du enplegu gehiago sortuko. Beste atalean esperientziarekin hartutako gaitasun profesionalak behatu, ebaluatu, ziurtatu eta erregistratzeko sistema garatu eta abiaraztea neurri gisa jasotzen da. Ekimen hau ere ez da inongo berritasuna.

Enpresen atalari dagokionez: Ehun produktiboaren beharrianak aztertzea eta lehiakortasuna ekimen berrien bidez hobetzea proposatzen da. Halaber, enplegua sortzeko ere negozio berrien sorrera bultzatu nahi dute, enpresa ekintzaileak sarituz, autoenplegua eta hazten ari diren sektoretako enpresa berriak sustatuz. Formula honek ez du balio enplegua sortzeko, enpresei diru publikoa emateko baizik.

Lurralde kohesioari dagokionez: Ahalegin bakarra aipatzen da, eskualde mailako enplegu planak indartzea. Plan hauek lurraldearen plangintza estrategikoen emaitza izango dira, eta hauen oinarriak sustapen ekonomikoak, enplegua sortzea eta langabeziaren aurkako ekintza; proiektu konkretuak finantzatzeko dira eta kasu bakoitzean beharrezko diren baliabideak bideratuko dituzte, baina ez dago zehaztasun handirik.

Akordioa 321,5 milioi euroz hornituko dute. Gainera diru-partida hau ukiezina dela diote Eusko Jaurlaritzak egin ditzakeen murrizketen aurrean.

Akordioaren benetako funtsa pastela gizarte-elkarrizketako (sasi-elkarrizketako) mahaikideen artean banatzea da, berez Lanbideri dagozkion egitekoak gauzatzeko. Lanbidek egun ez du funtzionamendu egokirik; antolakuntza arazo handiak ditu; bertako langileek ez dute Gizarte Elkarrizketa Mahaian hartutako erabakien berririk, eta ondorioz, ez dakite kasu bakoitzari dagozkion funtzio eta eskumenak ere.

[Irakurri iritziaren agiria](#)

2. ELAren PARTE-HARTZEA ARABAKO BATZAR NAGUSIETAN FISKALITATEAREN PONENTZIAN

Pasa den maiatzaren 23an ELAk Arabako Batzar Nagusietan parte hartu zuen fiskalitatearen inguruan bere posizioa adierazteko.

ELAk urte asko daramatza Hego Euskal Herrian aplikatzen diren politika fiskalak salatzen eta horien erabateko aldaketa eskatzen.

Ditugun datuen arabera daukagun sistema fiskalaren inguruan hainbat ondorio atera genitzake, adibidez, hemengo presio fiskala EBekoa baino baxuagoa dela eta krisiaren ondorioz are gehiago jaitsi dela. Datuen arabera, EBeko presio fiskalaren zerrendan azkenengo tokian gaude. Presio fiskal baxuena duten herrialdeak dira egoera ekonomiko okerreanean daudenak, langabezi tasa altuenak dituztenak eta gizartearen aurka doazen murrizketa larrienak ezartzen dituztenak.

Moralaren aurkakoa da, eta gainera guztien aurka doa, Confebaskek aipatzen duen enpresei, kapitalari eta errenta altuei zerga murrizketak egin behar izatea. Ez da egia

honela lehiakortasuna hobetuko dela, eta kapitalaren aldegitia saihestuko dela. Nabarmena dena egungo egitura eta injustizia fiskala, eta horrek ekarri dituen ondorio latzak, patronalari jaramon egin dioten egungo agintarien errua dela da. Beharrezkoa da gastu publikoaren gorakada bat ekonomia mugitzeko, zerga bilketaren hazkundeak administrazioaren errenta banatze funtzioa indartuko bailuke.

Guzti honegatik, ELAk premiazkoa ikusten du araudi fiskalaren eraldaketa bat eta iruzur fiskalaren aurkako neurriak ezartzea. Aldaketa hauek beharrezkoa dira bi arrazoiengatik. Lehen, sistema fiskal justuagoa eta solidarioagoa izateko. Bigarrena, beharrezkoa delako zerga bilketa handitzea Europar Batasuneko babes sozial eta presio fiskalaren batz-bestekoekiko defizita murrizteko.

ELAk, iazko irailean, aurrera eraman ahal izateko borondate politikoa baino gehiago behar ez duten proposamenak luzatu zizkien Aldundiei. Bertan proposatzen genituen neurrien artean daude: iruzur fiskalaren aurkako borroka, Sozietateen gaineko Zergan eta PFEZean aldaketak, gizarte parte-hartzearen mekanismoak eta Lege Biltzarretik arautzea fiskalitatearen inguruko gaiak.

[Irakurri dokumentua](#)

3. DIRU PUBLIKOKO BESTE 19.000 MILIOI EURO BANKIARENTZAT

Arpilatzeak jarraitzen du. Eta aurreikuspen guztiak gaintitzen ditu. Aurreko buletinean salatu genuen Gobernuak 4.465 milioi euro emango zizkiola Bankiari FROBaren bitartez eta litekeena zela beste 7.000 milioi beharrezkoak izatea.

Pasa den ostiralean jakin genuen gobernuak askoz diru gehiago emango zuela. Hain zuzen ere, 19.000 milioi euro, emandakoak eta ematekoa direnak 23.465 milioi euro direlarik. Honetarako ba omen dago dirua, eta ez gutxi. Hau, beste erakunde batzuei banatuko zaienaren aurrekaria baino ez da. Bankiari emango zaion dirutzak azkenengo erreforma bankarioan onartu zenaren beharrianak gainditzen ditu, argi geratzen delarik zenbatekoa ez zela nahikoa eta aurretiaz bazekitela.

Bankian diruaren injekzioa zor publikoaren jaulkipenaren bitartez egingo da. Gobernuak Bankiaren akzio berriak izenpetuko ditu eta zor tituluak emango ditu trukean. Gobernuak eta komunikabide garrantzitsuenek “gerorako errentagarritasuna” hitz egiten dute, Bankia berriro pribatizatzen denean. Gertakizunen arabera ez da errentagarritasun hau egongo (ez dago kapital pribaturik gobernuak egin duena egingo lukeenik), baizik eta Bankiaren onbideratze bat etorkizunean saldo prezioan pribatizatzeke, diru publikoan galera izugarri bat emanez eta irabaziak pribatuan.

Iruzurra jaun eta jabe da finantza erakunde eta botere politikoan. Goirigolzarriren, Bankiako presidente berriaren, deklarazioak ezin dira beste era batean kalifikatu. Gobernuarekin negoziatzen zegoela Espainiako Bankuak dirua eman zion bere bankuak aurrera egin zezan eta bitartean publikoki bankuak kaudimena zuela zioen. Eta zeresanik ez Rajoy eta Luis de Guindosen adierazpenen inguruan, non adierazten zuten ez zela bankuak aurrera egiteko diru publikorik egongo.

Hau onartezina eta moralaren aurkakoa da. Gobernuak ez du bere dirua ematen. Zergadun guztion dirua da. Gure dirua da,

laneko errentek bakarrik ordaintzen baititugu zergak norberaren baliabideen arabera. Gainera gobernuak soldatak murrizten ditu (sektore publikoan eta onartu duten lan erreforman langileria txirotu dute), pentsioen erosahalmena murriztu dute (bi urtetan %1eko igoera eta eta pentsioen erreformaren eragina), Hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuetan murrizketak. Eta guzti hau diru ezan oinarritzen dute. Bestalde, ez daukate inongo lotsarik diru zenbateko izugarriak bankuetara bideratzeko. Imajinatu gure seme alabak gosea pairatzen dutela edo eskola eskasetara bidaltzen ditugula eta bitartean bankuari edo auzoko tabernari dirua emateko zorpetzen garela.

Gizartearen gaitzespena bermatuta dago. Alde txarra, egiten ari diren guzti hau inongo zigorgabetasunik gabe ari dira lortzen.

4. ESPAINIAR ESTATUAN ATZERALDIA ETA LANGABEZIAREN HAZKUNDEA IRAGARRI DITU ELGAK

Pasa den astean, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) sei hileko txostena argitaratu zuen. Honen arabera, 2012an Espainiako BPGd-a %1,6 murriztuko da eta 2013an %0,8 gehiago txikiagotuko da. Datu hauek are okerragoak izan omen daitezke arrisku-primaren bilakaeraren arabera (zor-merkatuan erreferentziatzat hartzen da estatu batek Alemaniako bonoekiko ordaintzen duen diferentziala hamar urteetarako zorretan) eta finantziario publikoaren kostuengan duen efektuaren arabera.

ELGAK BPGd-aren, langabezia-tasaren, defizit publikoaren eta zor-publikoaren inguruan egiten dituen iragarpenak honakoak dira:

PREVISIONES DE LA OCDE

| | PIB (variación anual, en %) | | | Tasa de paro (% de la población activa) | | | Déficit público (% del PIB) | | | Deuda pública (% del PIB) | | |
|---------------|--------------------------------|-------------|-------------|--------------------------------------------|-------------|-------------|--------------------------------|-------------|-------------|------------------------------|-------------|-------------|
| | 2011 | 2012 | 2013 | 2011 | 2012 | 2013 | 2011 | 2012 | 2013 | 2011 | 2012 | 2013 |
| Francia | 1,7 | 0,6 | 1,2 | 9,3 | 9,8 | 10,0 | -5,2 | -4,5 | -3,0 | 100,1 | 105,5 | 107,3 |
| Alemania | 3,1 | 1,2 | 2,0 | 5,7 | 5,4 | 5,2 | -1,0 | -0,9 | -0,6 | 87,2 | 88,5 | 87,8 |
| Grecia | -6,9 | -5,3 | -1,3 | 17,6 | 21,2 | 21,6 | -9,2 | -7,4 | -4,9 | 170,0 | 168,0 | 173,1 |
| Irlanda | 0,7 | 0,6 | 2,1 | 14,5 | 14,5 | 14,4 | -13,0 | -8,4 | -7,6 | 114,1 | 121,6 | 126,9 |
| Italia | 0,5 | -1,7 | -0,4 | 8,4 | 9,4 | 9,9 | -3,8 | -1,7 | -0,6 | 119,7 | 122,7 | 122,1 |
| Japón | -0,7 | 2,0 | 1,5 | 4,6 | 4,5 | 4,4 | -9,5 | -9,9 | -10,1 | 205,5 | 214,1 | 222,6 |
| Portugal | -1,6 | -3,2 | -0,9 | 12,8 | 15,4 | 16,2 | -4,2 | -4,6 | -3,5 | 117,6 | 124,3 | 130,1 |
| España | 0,7 | -1,6 | -0,8 | 21,6 | 24,5 | 25,3 | -8,5 | -5,4 | -3,3 | 75,3 | 87,9 | 90,9 |
| R. Unido | 0,7 | 0,5 | 1,9 | 8,1 | 8,6 | 9,0 | -8,4 | -7,7 | -6,6 | 97,9 | 104,2 | 108,2 |
| EE UU | 1,7 | 2,4 | 2,6 | 8,9 | 8,1 | 7,6 | -9,7 | -8,3 | -6,5 | 102,7 | 108,6 | 111,2 |
| Zona Euro | 1,5 | -0,1 | 0,9 | 10,0 | 10,8 | 11,1 | -4,1 | -3,0 | -2,0 | 95,1 | 99,1 | 99,9 |
| OCDE | 1,8 | 1,6 | 2,2 | 8,0 | 8,0 | 7,9 | -6,3 | -5,3 | -4,2 | 103,0 | 107,6 | 109,3 |

Krisiari aurre egiteko, Europak austeritatea ezarri du irtenbide bezala, baina datuek erakusten dutenez, politika hauek ez dira irtenbidea. Politika hauek Europar Batasuna atzeraldi ekonomikora eta langabeziaren handitzera eraman dute.

Espainiak buru da Eurogunean ezarri diren murrizketa gogorrenen zerrendan, Grezia, Portugal eta Irlandaren aurretik. Honek azaltzen du zergatik duen Espainiak iragarpenik beltzena hazkunderari eta langabeziari dagokionez.

Euroguneko estatuak austeritate politika oso ezberdinak egiten ari dira. Estatu batzuk defizita murrizteko gastua txikiagotzea erabaki dute. Erreskatuak izan diren estatuak izan dira bide hau hartu dutenak Grezia, Portugal eta Irlanda bezala, eta baita Espainia ere. Espainiar Estatuko aurrekontuko murrizketak BPGd-aren %5,9koak dira, zergen igoeraren BPGd-aren %1aren aldean. Grezian murrizketak BPGd-aren %4,6koak dira, eta Portugalen %4,2koak, zergen igoera Grezian BPGd-aren %0,9koa izan den bitartean, eta

Portugalen BPGd-aren %0,15koa. Italiak berriz diru-sarrerak hein handiagoan igotzea erabaki du (BPGd-aren %3,4) murrizketen aldean (BPGd-aren %1,1). Azkenik Alemania, Frantzia, Polonia, Herbehereak, Austria edo Estatu Batuak bezalakoak austeritate politikak eta zergen igoerak bateratzen dituzten politikak ezarri dituzte.

Bistakoa da “austeritate” hitzaren zentzu bat baino gehiago daudela, eta estatu bakoitzak modu ezberdinean ezartzea erabaki duela. Zentzu guztietan ondorioak txarrak dira, baino gastua zenbat eta gehiago murrizten den, orduan eta ondorio okerragoak dakartzate.

5. TROIKAK GREZIA MEHATXATUTA DAUKA EUROPAKO BURUEN ETSIPENAREN AURREAN

Hauteskundetako emaitzen ondoren, eta ekainaren 17ko deialdi berriaren ondoren, Greziak etengabeko presioa jasaten segitzen du Troikaren aldetik murrizketekin jarraitzeko.

Greziako herritarrak modu garbian azaldu dira murrizketen aurka. Eta denbora pasa ala, gizarte egoera okertuz doa. Izan ere osasuna, hezkuntza edo etxebizitza bezalako oinarrizko eskubideak ere ez baitaude bermatuta.

EB, EBZ eta NDF-ren mehatxua Alemaniarenarekin batera garbia da: edo adostutakoa onartzen da eta zegoen moduan (erreskate plana negoziatu gabe) edo Greziak ez du beste mailegurik jasoko eta eurotik atera beharko du.

Greziako herriak ez du austeritate gehiagorik nahi, eta Alemaniaren eta Troikaren mehatxuei aurre egiteko prest dago. Azken hauek urduri daude, eta mehatxuak erabiltzen dituzte beraien etsipena

ezkutatzeko. Izan ere Greziak lur-jotzen badu, EBZak bere gain hartu beharko du zor guztia, eta Euroguneko beste herrialdeetako doitzeak ikaragarriak izango dira.

Baina, zer gertatuko litzateke Grezian Eurogunetik ateratzeko erabakia hartuko balitz? Ziur aski, lehendabiziko ondorioak oso gogorak izango lirateke, baina politika zentzudunak ezarri ezkerro egonkortasun makro-ekonomikoa lehen bai lehen berreskuratzeko, Grezia hazkundearen bidean jarriko litzateke. Ez dago atzera begiratzea besterik, eta 90eko finantziario krisian gertatu zena ikusi. Ondo jo eta beraien txanpona debalatu zuten estatu batzuek, eta bi urtez atzeraldi gogorak jasan ondoren, susperraldia berehalakoa izan zen. Adibide asko daude zentzu honetan: Argentinak %8ko hazkundera izan zuen, Hego Koreak %6ko hazkundera, Indonesiak %5ekoa eta Errusiak %7koa. Beraz, Grezia Eurogunetik botatzeak edo ateratzeak urte gutxitako mehatxua izango litzateke beretzat, eta europar proiektuarentzako tragedia suposatuko luke.

Honenbestez, Greziari gertatu dakioken gauzarik txarrena Troiak ezarritako neurriak babestu dituzten partiduak koalizioko gobernua osatzea lortzea izango litzatekeela da, bere eskubideak defendatzeko borrokan ari den herria gehiago hondoratuko bailukete.

6. PROPOSAMENA: ETXEBIZITZA DUIN BATEN ALDE

ELAk Etxebiz-Hitza Plataforman parte-hartzen du. Bada urtebete etxebizitza lege berriak jaso beharreko neurrien dekalogoia egin zela.

Orain dela pare bat hilabete dekalogoia Legebiltzarrean aurkeztu zen. Honako puntu hauek jasotzen dira bertan:

1. Etxebizitzarako eskubide subjektiboa: 18 urte baino gehiago dituen pertsona orok, alokairuan, bere beharretara egokitzen den etxebizitza duin baterako eskubide subjektiboa izango du. Eskubide hau bermatzeko sektore publikotik alokairu publikoko etxebizitza eskaintza nahikoa bermatuko duen Etxebizitza Zerbitzu Publikoa garatuko da.

2. Etxebizitza publikoa alokairuan baino ez: administrazio publiko guztiek, euren politikak birbideratu beharko dituzte, esku hartze publikoan eraikitako etxebizitza berri oro alokairuan edo antzeko era batean esleitu dadin.

3. Etxebizitza publikoen esleipenaz: zozketa bidezko etxebizitza esleipenak amaitu beharreko errealitate bat direla ulertzen dugu.

4. Etxebizitza Zerbitzu Publikoa: jendarte osoaren behar sozialak lehenestean, Etxebizitza Zerbitzu publiko bat sortzearen beharra dakar. Honek etxebizitza eta hirigintzan garatutako ekintza ezberdinak koordinatuko lituzke. Zerbitzu honek legeak ezarritako helburuak lortzea bermatu behar ditu eta eskusiboki bertara jo beharko dute herritarrek euren etxebizitza duin eta egokirako duten eskubidea bermatu dadin.

5. Etxe huts eta azpi okupatuak: premiazkoa da egoera honetan dauden etxebizitzaren gain hainbat pizgarri eta neurri zigortzaile jartzea, etxebizitza mota hauek behar sozialei erantzun diezaioten.

6. Alokairu librearen merkatuaren interbentzioa: Etxebizitza Zerbitzu Publikoak alokairu librearen merkatuko errentak arautzen dituen sistema bat ezartzea nahitaezkoa da.

7. Hipoteka Legea: hipoteka legea aldatu beharra dago, bai hipoteken amortizazio epeei eta baita zorpetze-ratioei ere

gehienezko bat ezarriz. Horrez gain, hipoteka legeak "ordainean ematea" onartu beharko du, hau da, zorra pisua banketxeari ematearekin kitatzea.

8. Behin behineko abagune neurriak: behin behinekoa den abagune neurri bezala, beharrak bultzatuta hipoteka ordain ezinean dauden kasuetan, Etxebizitza Zerbitzu publikoak higiezina Obra Publikoaren Prezioan bereganatuko du, berau Etxebizitza Parke Publikora gehituz. Neurri ez-ohiko onuradun izandako pertsonak Etxebizitza Publikoaren erabiltzaile izatera pasatuko dira, zeinek kalitate eta bizigarritasun baldintza guztiak bildu eta familia edo elkarbizitza unitatearen beharrak betetzen dituen etxebizitza bat erraztuko dien.

9. Zerga eta aurrekontuak: aurrekontuetan lortu beharreko helburua Etxebizitza Zerbitzu Publikoa gastu maila egoki batera eramatea izan behar da, gaur egun maila egoki hau BPGd-ren %4a dela ulertzen dugularik. Horregatik, zerga gastuaren politikarekin (kenkariak) bukatzeaz gain, zerga sistema birbideratu beharra dago, erakundeek gehiago eta bidezkoa den modu batean bildu dezaten.

10. Herritarron parte-hartzea: botere politikoek benetako herritar parte-hartze sistemak garatu eta ezarri behar dituzte, gardentasuna ziurtatuko duten mekanismoaz eta ustelkeriaren prebentziorako tresnez gain.

[Irakurri Etxebiz-Hitza dekalogoia](#)